

KONTU-KONTARI

PIERRE ANDIAZABAL ETA MATXIKOLAKO ITURRIA

Badira behin lan handia eginez ospetsu egiten direnak eta liburu guztietan aipatzen dituztenak, eta badira, berriz ere, bizitza osoan etengabeko lan izugarri handia apaltasunez eginez ari-tzen direnak. Hauen izenak ez dira nehon agertzen, baina be-
raien lana funtsezkoa izan da bizitzaren hainbat arlotan. Horixe da Pierre Andiazabal urruñar euskaltzalearekin gertatzen dena.

1. Urruñako semearen haur eta gazte urteak

Pierre Andiazabal Saint Pierre Lapurdiko Urruñan, Plazako Errotan, sortu zen 1923ko urtarrilaren 18an. Aita azkaindarra zuen, Serres auzokoa, Urruñara etorria eiherazain gisa. Ama, berriz, urruñarra. Hiru seme-alaba izan zituzten, Pierre zaharrena izanik.

Pierrek herriko eskola publikoan ikasi zuen eta Cachenaut bikarioaren gomendioak jarraituz, 1934. urtean Uztaritzeko Seminario Txipian sartu zen eta bertan izan zen 1941. urtera arte. Baxoa eskuratu ondoren Baionako Seminario Handira jo zuen bere ikasketak segitzera.

1942an alemaniarrek Seminarioa hartu zuten euren beharretarako, eta hori dela eta, Pierre urtebetez Donibane Gara-ziko *Mayorga* kolegioan izan zen.

1947ko agorrilaren 29an apez izendatu zuten eta Hazparneko mutikoen eskola giristinoko bikario-irakasle gisa ari izan zen. 1953ko agorrilaren 3an Uztaritzeko Seminario Txipiko irakasle eta ekonomo izendatu zuten eta bertan izan zen 1994ra arte, aipatu urteko apirilaren 21ean Baionako katedraleko kalonje tituludun izendatu baitzuten.

2. Euskararen eta euskal liturgiaren aldeko langile sutsua

1950. urtean, hogeita zazpi urte zituela, 1945etik 1953ra Donibane Lohizunen eta Buenos Airesen argitaratu zen *Gerrika* hiruhilabetekari abertzale eta humanistan aritu zen laguntzaile gisa. Isidoro Fagoaga beratarra izan zen aldizkariaren zuzendaria eta diru-sostengatzailea. *Herria* astekarian ere, hainbat artikulu plazaratu zuen eta *Lapurdi Irratian* ere luzaz aritu zen laguntzaile gisa, erlijioarekin loturiko gaiak jorratuz.

Euskara batuaren sorreran parte hartu zuen hirurogeiko hamarkadan, Baionan izan ziren bilkuretan ekarpenak eginez. Txillardegia, Jean-Louis Davant, Eneko Irigarai, Jesus Solaun, Telesforo Monzon, Roger Idiart eta Jean Hiriart-Urruti izan zituen bidelagun eta solaskide. 1963an Liturgia Batzordeko kide izendatu zuten eta Vatikanoko II. Kontzilioaren ondotik, hau da, 1962tik 1965ra, idazkari. 1963an, Pierre Andiazabalek Euskal Herriko liturgia erreforman esku hartze handia izan zuen testu gehienak euskarara itzuliz, salmodiak salbu.

Itzultzaile eta moldatzaile gisa urruñarrak egin lan handia kontuan harturik, 1964an euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta 2000. urtean ohorezko euskaltzain. Euskal Telebistan igandeetako meza arduradun izan zen eta Baionako elizbarrutiaren ordezkari hogeit bat urtez. Baionako apezpikuen mezuen euskaratzailea izan zen luzaz. Gristino pentsamendua zabaldu nahian, *Gogoeta Astea* sortzen, bideratzen eta animatzen hogeita bost urtez aritu zen. EIZIE elkarteak ohorezko bazkidetzat onartu zuen itzultzaile gisa egindako lanengatik.



2015ean, osasun arazoak zirela eta, Kanboko *Arditeya* zahar-egoitzan sartu zen, beste zenbait apezekin batera. Ongi merezi-tako atsedenean zegoela, heriotzak eraman zuen 2020ko maiatzaren 16an, laurogeita hamasei urte zituela. Euskal Herri eta mundu osoa koronabirusaren izurriteak sorturiko konfinamendu garaian hil zen, eta horregatik, Urruñako elizan izan zen ehorzketa elizkizunetan meza zuzendu zuten hiru apezek gain, hamar senide eta adiskide izan ahal ziren bakar-bakarrik. Agurraldi beroa baina apala eman zioten beti langile eta apal bizi izan zen urruñar euskaltzale handiari. Goian bego.



3. Pierre Andiazabalen idazlan nagusiak

- *Meza denborako deiak*. 1961.
- *Igandetako eta bestetako salmo-leloak*. 1974.
- *Igandetan elizan*. 1988.
- *Mezetako deiak*. 1986-1988.
- *Kantikak*. 1988.
- *Euskarazko kantiken partitura bilduma*.
- *Igande eta bestetako irakurgaiak*. 2008.

4. Matxikolako iturria Urruñan

Artikuluaren hasieran aipatu dudan bezala, Pierre Andiazabal, laguntzaile aritu zen XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan Donibane Lohizunen argitaratu zuten *Gernika* izeneko aldizkari abertzale eta humanistan. Aldizkari guztiak

aztertu ditut bere artikulu edota kolaborazioak bilatuz, baina, bere izenaz sinaturik, artikulu bakarra aurkitu dut. Frantsesez idatzirik dago eta Urruñan ospetsua izan zen Matxikolako iturria du idazgai. 1950eko urrian, argitaratu zuten hamahirugarren aldizkarian plazaratu zuen. Garai hartan Pierre Andiazabalek hogeita zazpi urte zituen. Baliteke ezizenak erabiliz artikulu gehiago plazaratu izana, baina ezin jakin. Urruñako euskaltzale handia modu apalean oroitu eta omendu nahian, aipatu artikulua euskaraturik ekarri dut lerro hauetara. *Matxikolako iturria Urruñan* izena du.

“Juan Thalamas Labandibar jaunak Gernika aldizkariaren azken zenbakian (hamabigarrenean alegia) Mari jainkosaz idatzi zuen artikuluak barne gogoeta piztu zautan, eta idazki honen bidez, Urruñan, Sokorri muinoaren azpiko ibarrean, Lurentzenia, Gorria-baita eta beste etxe batzuk dauden lekuan, zenbait iturri daudela aipatu nahi nuke.

Iturri horien artean bada bat Matxikola deitzen dena. Ez dakit Marirekin zerikusirik ba ote duen, baina oraindik duela berrogeita hamar urte, aski ospetsua zen Urruñan eta inguruetan. Iturriko urak eritasunak sendatzen omen zituen. Harizpe jaun medikuak herrian eri zirenei ainitzetan Matxikolako ura edateko gomendatzen zien. Biziki ur freskoa zen, garbi-garbia eta biziki ongi edaten zena. Inguruetako iturrietako urak baino ainitzez hobea zen. Horrela diote urruñar zabarrek, eta iduriz, neboiz ez omen zen abitzen, ezta lehorre garai gogorrenetan ere.

Garai haietan, Bixintxoren bestetan, jende franko etortzen zen Urruñara, eta ainitz ziren, belardian jarriarik, iturriaren inguruetan jaten zutenak. Nire amak oraindik hori dena gogoan du.

Matxikolalo ur sendagarria egiazko uronea (ur sakratua) zen, Bidarten edota Hazparnen, Lukugainditik hurbil den Doniane Batistaren iturrien antzera. Lukugaindi leku-ize-

nak inguruan baso sakratu bat zegoela (lucus-i latinez) iradokitzen dauku.

Iduriz, Sokorriko kapera antzinatetik bertako euskalduentzat sakratua zen mendixkan eraiki zuten. Aipatu mendixka sakratutzat hartzen zuten bertako gainetatik ur on eta garbia Urruñara jaisten zelako, Matxikolako iturria eta inguruetako gainerakoak sortuz.

Gaur, Matxikolako iturria galdua da sasi eta labarren artean. Nebor ez da bertatik edatera joaten, herriko zaborrak edota hondarkiak inguruetan metatzen dituztelako.”



*Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2020ko maiatzaren 23an*